

BERGARAKO UDALA

UDALTZAINGOKO AGENTEEN LAN-POLTSA: DEIALDIAREN OINARRIAK

Lehena. Deialdiaren xedea

Oinarriok helburu dute Udaltzaingoko agenteen lan-poltsa bat sortzeko hautapen-probetarako deialdia egitea.

Eguneko lanaldia Udalak ezarriko duena izango da, betiere zerbitzuaren izaera eta beharrianak kontuan hartuta.

Begarako Udaltzaingoaren ardurapean udalak onartuta dituen eginkizunak eta ardurak izango dira egitekoak.

Halaber, udalak dituen premietan laguntza ematea eta, bere lanarekin eta lan-mailarekin bat etorriz, zerbitzuburuak agindutakoak betetzea. Guzti hauek zeintzuk diren jakiteko ikus lanpostuaren balorazio-galdetegiak jasotzen dituen zereginak.

Lanpostuaren ezaugarriak hauek dira:

— Titulazioa: Eskola Graduatua, Lehen Mailako Lanbide Heziketa edo baliokide den titulua izatea. Atzerriko titulazioen kasuan, titulua homologatuta dagoela dioen ziurtagutunaren jabe izatea.

— Hizkuntza-eskakizuna: HAEE/IVAPeko 2. HE, derrigorrezkoa.

— Indarrean dagoen B motako gidabaimena.

Bigarrena. Izangaiek bete beharreko baldintzak

Deialdian parte hartu nahi duten pertsonak, onartuak izateko, ondoren aipatuko diren baldintza guzti hauek bete beharko dituzte, bat bera ere uzteke:

- a) Nazionalitate espainiarra edukitzea
- b) Indarrean dagoen araubidearen arabera, desgaitasun edo bateraezintasuneko legekausaren batean sartuta ez egotea; hala ere, araudiak ematen duen aukera-eskubidea errespetatuko da.
- c) Eskola Graduatua, Lehen Mailako Lanbide Heziketa edo baliokide den titulua izatea. Atzerriko titulazioen kasuan, titulua homologatuta dagoela dioen ziurtagutunaren jabe izatea.
- d) Gizonek gutxienez 1,65 metroko garaiera eduki behar dute; emakumeek, berriz, 1,60koa. Baldintza hori hala eskatzen zaien unean egiaztatuko da.
- e) B motako gidabaimena izatea.
- f) Euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna izatea. Baldintza hori dagokion ziurtagiria ekarriz egiaztatuko da; edo bestela, oposizio-aldiaren baitan bertan horretarako azterketa bat eginez.
- g) Euskal Herriko polizia prestatzeko eta aukeratzeko araudia onartzen duen 315/1994 Dekretuaren eranskinean aipatzen diren arrazoi medikoen bazterketen laukian ez agertzea. Hori dagokion momentuan egiaztatu beharko da bidezkoa den azterketa medikoaren bidez.



h) Dolozko delituren bat egiteagatik kondenatua ez izatea; Administrazio Publikoko zerbitzutik zigor-espediente bidez botatakoa ez izatea eta funtzio publikoan aritzeko desgaitzerik ere ez izatea. Halaber, arau penalen eta administratiboen arabera, errehabilitatzeko onura aplikatuko da.

i) Euskal Herriko Poliziaren kidego baten sartzeko aukeraketa-prozesuren batetik falta larri edo oso larriren bat egiteagatik kanporatutakoa ez izatea, salbu eta bazterketa adierazpenaren egunetik kontatuta preskripzio-denboraren beste horrenbeste denbora igaro bada.

Izangaiek beteta eduki behar dituzte baldintza horiek deialdian onartuak izateko eskabideak entregatzeko epea amaitu baino lehen (f puntua izan ezik), eta lanpostuaz jabetu arte bete.

Hala ere, prozeduraren edozein unetan, epaimahaiak jakinez gero izangaietako batek ez dituela betetzen deialdiak eskatzen dituen betekizunak edo baldintzak, prozeduratik kanpo geratuko litzateke, interesdunari entzun eta gero, eta hautaketa-prozesua deitu duen agintaritzari egun horretan bertan emango zaio horren berri.

Hirugarrena. Eskabideak

Eskaerak behar bezala beteta aurkeztu behar dira ondorengo leku hauetako batean:

- a) B@Z zerbitzuan (San Martin Agirre plaza 1, 20570 Bergara). Ordutegia: 7:30etik 15:30era, astelehenetik ostiralera.
- b) Bergarako Udaleko erregistro elektronikotik (www.bergara.eus, egoitza elektronikoa).
- c) Posta-bulegoetan. Horrelakoetan, betiere aurkezpen-epearen barruan, eskabidea gutun-azal ireki batean aurkeztu behar zaio Postetxeko funtzionarioari, hark eguna eta zigilua jarri eta ziurtatu ahal dezan. Horrela bakarrik ulertuko da eskariak Postetxearen bulegoan entregatu ziren egun berebean sartu zirela Udal Erregistroan. Eskabidea bera da zigilatu beharrekoa.
- d) Aplikagarria den araudiak dioen beste edozein eratan.

Lehiaketa-oposizioan onartua izateko eskaerak alkate andreari zuzendu behar zaizkio, eta eskabide horiek baztertuak ez izateko ondorengo baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Izangaiek adierazi behar dute eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunerako bete egiten dituztela Bigarren Oinarrian eskatutako baldintza guzti-guztiak, bat bera ere uzteke, euskara-ezagutzarena izan ezik.
- b) Izangaiek tituluaren kopia ekarri behar dute –Eskola Gradatua, Lehen Mailako Lanbide Heziketa edo horien baliokide den titulua–. Atzerriko titulazioen kasuan, titulua homologatuta dagoela dioen ziurtagutuna ekarri behar da.
- c) Izangaiek oposizioko ariketak Autonomia Erkidegoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten adierazi beharko dute. Edozein kasutan ere, gaitasun psikologikoak ebaluatzeko probak haiek diseinatuta dauden hizkuntzan edo hizkuntzetan egingo dira.
- d) Euskara-azterketarik ez egiteko, izangaiek, HAEE/IVAPeko 2. hizkuntza-eskakizuna edo horren baliokidea dutela egiaztatzen duen agiria ekarri ahal izango dute.
- e) Izangaiek NANaren edo AIZaren fotokopia edo 2. oinarrian ezarritako aurreneko betekizun hori bete egiten duela egiaztatzen duen dokumenturen bat ekarri behar dute.



Eskaera eredu ofizial normalduaren arabera egin behar da, eta **2019ko apirilaren 30a arteko epearen barruan aurkeztu.**

Egitezko okerrak antzematen badira, edozein unetan zuzendu ahal izango dira eskaerak aurkezteko epearen barruan, ofizioz ala interesatuak egindako eskariz.

Laugarrena. Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko Lege Organikoa betetzea

Informazioaren tratamenduak kontuan hartuko ditu Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta aplikagarri diren bestelako arauak.

Datu pertsonalak hautapen prozesuan parte hartzeko eskaerak kudeatzeko ez besterako erabiliko dira, interesdunak emandako baimenean eta datu-tratamenduaren arduradunari aitortutako ahal publikoetan oinarrituta; hain zuzen ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduak –datu pertsonalen tratamenduari eta zirkulazio libreari dagokienean pertsona fisikoak babestekoak– 6.1 artikulua a) eta e) letretan xedatutakoaren arabera, hurrenez hurren.

Orobat, parte hartzeko eskaeran izangaiak berariazko baimena eman beharko dute beren datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzeko. Datu-lagapen horren helburu bakar eta eskusiboa izango da administrazio publiko horiek enplegu-eskaintzak egin ahal izatea, legez aurreikusi bezala; eta izangaiaren onarpena berariaz jasotzen ez bada, lagapenaren aurka dagoela joko da.

Datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezereztzeko, mugatzeko edo horien aurka egiteko eskubideak erabiltzeko aukera dago, eta horretarako, idatzia bidali beharko da Bergarako Udaleko Pertsonal Sailera.

Aukeraketa-prozesu hau publizitatearen printzipioak gidatzen du; beraz, prozesu honetan parte hartzen duten pertsonen euren eskabideetan Bergarako Udalari ematen dizkieten datu pertsonalak erabiltzea edo tratatzea onartzen dute, aukeraketa-prozesuaren emaitza partzialak eta behin betikoak argitara emateko buletin ofizialetan, iragarki-tauletan, webgunean eta beste hedabide batzuetan.

Bosgarrena. Izangaiak onartzea

Aurrekoa amaitu ondoren, Alkatezak Ebazpena emango du, onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendak onartzeko, eta zerrenda horiek, Bergarako Udalaren iragarki-taulan eta Udalaren web-gunean jarriko dira. Erreklamazioetarako eta eskaeretan egindako akatsak edo okerrak konpontzeko, 5 egun naturaleko epea izango da.

Erreklamaziorik ez badago, behin behineko zerrenda horiek, besterik gabe, behin betiko zerrenda bihurtuko dira. Erreklamaziorik badago, behin betiko zerrenda horiei onspena emango dien ebazpen berri batean onartu edo baztertuko dira, eta zerrendak aurretik adierazitako modu berebean argitaratuko dira.

Probetan, Ebazpenaren arabera prozesuan onartutako izangaiak parte hartu ahal izango dute, baita zerrendetan baztertuta daudenean ere, baldin eta dagozkien inpugnazioak aurkeztuak dituztela eta erabakitze daudela frogatzen badute deitutako proban. Ebazpenean erreklamazioak atzera botako balituzte, pertsona horiek prozesutik kanpo geratuko liriteke.

Seigarrena. Epaimahai kalifikatzailea



Probak kalifikatzeko epaimahaia nork osatzen duten Udalaren iragarki-taulan eta udal web-gunean argitaratuko da. Epaimahaikideei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitako ezespren- eta abstentzio-kasuak aplikatu dakizkieke.

Honela osatuko da:

Presidentea:

— Bergarako Udaltzainburua.

Bokalak:

- a) Udaltzainburuaren ordezkoa.
- b) Bergarako Udaltzaingoko agente lehen bat
- c) Bergarako Udaltzaingoko agente bat .
- d) Komiteak izendatutako epaimahaikidea.

Idazkaria:

— Udaleko idazkaria

Euskararen ezagutza neurtzeko, Udaleko Euskara Zerbitzutik kide bat izendatuko da eta barne eraginak izango dituen neurketa egingo du.

Epaimahaien jardunbidea Administrazio Prozeduraren Legeak kide anitzeko organoei buruz agintzen duenari lotuko zaio.

Epaimahaiak aholkulari adituen edo enpresa berezituaren laguntza eskatu ahal izango du egoki ikusten dituen ariketarako, eta aholkulari horiek beraien espezialitate teknikoetan laguntza ematera mugatuko dira.

Epaimahaia eratzeko denetik, haren jardunbideak balio izateko, epaimahaikideen gehiengoak bertan egon behar du.

Epaimahaiaren erabakiak botoen gehiengoaren bidez hartuko dira. Epaimahaiburuan dagoenaren kalitatezko botoaren bitartez ebatziko dira berdinketak.

Epaimahaiburua (edo bere ordezkoa) bertaratu ez bada gaixorik dagoelako, bere kargua hutsik dagoelako edo bestelako lege-arrazoiren bat dagoelako, hierarkian maila goragokoena duen, antzintasun handiena duen edo adinez zaharrena den epaimahaikideak hartuko du haren lekua, esandako hurrenkera horretan.

Idazkari titularraren edo bere ordezkoren kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixo badago edo titularrari zein ordezkoari eragiten dien legezko bestelako arrazoiren bat badago, epaimahaikideen gehiengoaren erabakiz aukeratzen den kideak beteko du haren kargua.

Epaimahaiak autonomia osoz jardungo du, eta bera izango da prozeduraren gardentasunaren eta objektibotasunaren, proben edukiaren eta konfidentziasunaren eta deialdiko oinarriak zorrotz betetzearen erantzulea.

Halaber, ordenamendu juridikoarekin bat etorritik, batetik, oinarri hauek aplikatzerakoan sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu; bestetik, deialdia behar bezala garatzeko hartu beharreko erabakiak hartuko ditu; eta, azkenik, oinarrietan aurreikusi gabeko kasuetan erabili beharreko irizpideak ezarriko ditu.

Epaimahai kalifikatzailearen ebazpenak lotesleak izango dira izendapena egitea dagokion organoarentzat, baina horrek ez du esan nahi organo horrek erabakia berrikusi ezin



dezakeenik indarrean dagoen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak aurreikusitakoaren arabera.

Zazpigarrena. Aukeraketa-prozesuaren hasiera eta garapena

Oposizioko lehenengo ariketa non eta noiz izango den Bergarako Udalaren iragarki-oholean eta udal web-gunean emango da argitara, aukeraketa-prozesuan onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartzeko ebazpenarekin batera.

Oposizioaldiko frogekin hasteko aurreikuspena 2019ko maiatzaren bigarren hamabostaldia da.

Oposizio-faseko ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo zaie izangaiei. Deitzen zaion unean oposiziogileren bat ez bada agertzen proba horietako edozeinetara, nahiz eta ezinbesteko arrazoiak tarteko, besterik gabe, galdu egingo du parte hartzeko eskubidea ariketa edo proba horretan eta horren hurrengoetan; beraz, aukeraketa-prozesutik baztertuta geratuko da. Hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira baita ariketak egiten hasi ondoren sar-tzen diren izangaia ere.

Lehenengo ariketaren ondorengo gainerako ariketei dagokienez, hasi baino gutxienez 48 ordu lehenago iragarriko du epaimahaiak ariketa.

Prozeduraren edozein unetan, epaimahaiak jakinez gero izangaietako batek ez dituela bete-tzen deialdiak eskatzen dituen betekizunak edo baldintzak, prozeduratik kanpo geratuko da, berari entzun eta gero, eta hautaketa-prozesua deitu duen agintaritzari egun horretan bertan emango zaio horren berri.

Epaimahaiak oposizio-faseko ariketen ordena aldatzea erabaki dezake. Hala eginez gero, ariketa hasi baino gutxienez 48 ordu lehenago jakinaraziko die izangaiei.

Zortzigarrena. Aukeratzeko prozedura

Epaimahaiak edozein unetan eska diezaietako izangaiei nork bere burua identifikatzea, eta horretarako, oposizioaren ariketa bakoitzean NANA edo beste edozein dokumentu ofizial eraman beharko dute aldean, epaimahairen iritziz izangaiaren nortasuna behar den bestean egiaztatzeko modukoa dena (pasaportea, gidabaimena).

Oposizio-faseko ariketa bakoitzean, ariketak zuzendu eta izangaien nortasuna ezagutzera eman eta bakoitzaren kalifikazioa erabaki baino lehen, ariketa gainditzeko behar den gutxienerako puntuazioa lortzeko beharrezkoa den ezagutza-maila edo muga ezarri ahal izango du.

Epaimahaiak, ariketak oinarri honetan aurreikusitako hurrenkeran egin beharrean, beste hurrenkera bat jarraitzea erabaki dezake; halaber, egun berean ariketa bat baino gehiago egitea ere erabaki dezake. Kasu horretan, aurreko ariketa gainditu dutenen ariketak bakarrik aztertu eta baloratuko dira.

Arau orokor legez, **hiru laneguneko** epea ezarriko da –Epaimahaiaren ebazpena argitaratzen denetik zenbatuta– egindako azterketak berraztertzeko eskaera egiteko edo azterketei emandako kalifikazioen inguruko erreklamazioak egiteko.

Azterketa idatziak egitean, Epaimahaiak bidezkoak diren neurriak hartuko ditu izangaien anonimotasuna bermatzeko, betiere ahal den neurrian.



Izangaien hautaketa oposizio bidez egingo da, eta aurreikusten diren ariketen ordena alda daiteke udalak edo epaimahaiak horrela erabakiko balu.

8.1.- Oposizioaldia ariketa hauek osatuko dute:

1. Lehenengo ariketa: Nahitaezkoa eta baztertzalea. Bergarako kaleen ezagutza eta, besteak beste, zentro ofizialak, osasun eta gizarte-ongizate zentroak, kultura-zerbitzuak, hezkuntza-zentroak, zerbitzu erlijiosoak, Foru Ogasun bulegoa, Epaitegia, Erregistro Zibila, Jabego Erregistroa, IAT, Ertzaintzaren komisaldegia, autobus eta hiri barruko garraioaren geltokiak, taxi geltokia, Postetxea, kirol-instalazioak eta industrialdeak. Ariketa honetan, herriko kale, eraikin edo leku jakin batera joateko autoz edo oinez joateko bidea zein den galdetu ahal izango da.

Ariketa honi gehienez 20 puntu emango zaizkio, eta gutxienez 15 puntu lortu beharko dira gainditzeko.

2. Bigarren ariketa: Nahitaezkoa eta baztertzalea. Ariketa teorikoa eta praktikoa. Ariketa teorikoan, eranskinean jasotako gaien inguruko erantzun alternatiboko galdetegi bati erantzungo zaio. Okerreko erantzunak penalizatu egin ahal daitezke.

Ariketa praktikoari dagokionean, berriz, eranskinean jasotako gaiekin eta Bergarako Udaltzaingoaren eginkizunekin zerikusia du(t)en ariketa praktikoa(k) izango d(ir)a.

Bigarren ariketa honi gehienez 40 puntu emango zaizkio, eta bakoitzaren puntuazioaren erdia lortu beharko da gainditzeko.

3. Hirugarren ariketa: Proba fisikoak: Nahitaezkoa eta baztertzalea. Izangaiek I. eranskinean deskribatzen diren probak egin beharko dituzte.

Izangaiek proba fisiko hauek egiten dituztenean, erantzukizuna beraiena bakarrik izango da; eta probok egiteko, kirol ekipo egokia ekarri behar dute.

Hirugarren ariketa honi gehienez 10 puntu emango zaizkio, eta ariketa guztietako puntuazioa batuta gutxienez 5 puntu lortu beharko dira gainditzeko.

4. Laugarren ariketa: Nahitaezkoa eta baztertzalea. Udaleko Euskara Zerbitzuak 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea.

Gai/ Ez Gai bezala kalifikatuko da.

Ez dute proba hau egin beharrik izango ordenamendu juridikoak HAEE/IVAPeko 2., 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunen baliokidetzat jotzen dituen titulu edo ziurtagiri horietako bat dutenek, baldin eta titulu horiek probaren egunaren aurretik lortu izan badituzte. Titulu horien fotokopia aurkeztuz egiaztatu beharko da.

5. Bosgarren ariketa: Nahitaezkoa eta baztertzalea. Izangaien gaitasunak eta jarrerak zehazteko eta bete beharreko lanpostuaren profilerako egokitasun-maila ebaluatzeko diren proba psikoteknikoa(k). Kanpoko enpresa batek egingo ditu; epaimahaikideen presentzia ez da derrigorrezkoa izango eta ez dute boto-eskubiderik izango.

Ariketa hori baztertzalea da eta **Gai /Ez Gai** baloratuko da.

8.2.- Lehiaketa-aldia

Oposizioaldi-fasea gainditzen duten hautagaiak merezimenduen fasera igaroko dira. Fase honetan, Epaimahai Kalifikatzaileak eskabidean adieraziak izan diren hurrengo merezimendu hauek ebaluatuko ditu, baldin eta behar bezala kreditatuak izan badira, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziazat hartuz:

- a) 3. hizkuntza-eskakizuna izatea: 10 puntu.
- b) Zuzenbidean lizentziaturako edo graduko titulua dutenei, 5 puntu emango zaie.
- c) B+E gidabaimena izatea: 5 puntu
- d) Sorospen, babes zibil, hiri-segurtasun, informatika edo/eta udaltzain agenteen funtzioekin zerikusia duten ikastaro/formazio agiriak. Gehienez ere 10 puntu lortuko dira atal honetan eta honela baloratuko dira:
 - a. Gutxienez 20 ordukoa izan beharko da, eta 20 orduko iraupena izan dutenek 0,25 puntu izango dute.
 - b. 21 eta 45 ordu bitarteko iraupena izan dutenek, 0,50 puntu.
 - c. 46 ordutik gorakoek, puntu bat.

Oharra: Informatika ikastaroak 2017tik aurrera egindakoak izan beharko dira baloratuak izateko.

Bederatziagarrena. Prozesuaren azken kalifikazioa eta berdinketa

Hautaketa-prozeduraren azken kalifikazioa izango da lehiaketaldian eta oposizioaldian lortutako emaitzen batuketa, eta izangaien lehentasun-ordena zehaztuko du.

Hautespen-sistema osatzen duten ariketen kalifikazioa eta merezimenduen balioztapena amaitutakoan, Epaimahaiak Bergarako Udalaren iragarki-oholean argitaratuko du hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda, puntuaziorik handienetik txikienera doan ordenan.

Kalifikazio-epaimahaiak aurreko paragrafoan aurreikusitako zerrenda bidaliko dio alkate-udalburuari, lan-poltsa onartzeko proposamena eginez..

Berdinketa egongo balitz, honela erabakiko da, eta hurrenkera honetan:

- a. Ariketa praktikoan puntuaziorik handiena
- b. Nortasun-proban puntuaziorik handiena
- c. Zuzenbidean titulazio akademikoa
- d. Zozketaz

Bestalde, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Eusko Legebiltzarreko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua ezarritakoaren arabera eta Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Eusko Legebiltzarren 20.4.a) artikulua arabera, gaitasun bera badago, lehentasuna emango zaio dena delako lanpostu horretan % 40 baino ordezkaritza gutxiago duen sexuko pertsonari, salbuespena izango da lanposturako beste hautagai puntuetan berdinduak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituenen –nolanahi ere,

ezaugarriok ez dute eragin behar sexuaren ziozko bereizkeriarik-; kasurako, laneratzeko eta lanbide-sustapenerako arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.

Hamargarrena. Agiriak ekartzea eta izendapena egitea

Edozein kasutan ere, izendapenaren aurretik, lanpostua betetzeko proposatu den oposizioileak Pertsonal Sailean dokumentazio hau entregatu beharko du:

— Zinpeko aitortpena, non jasoko den zeregin publikoak betetzeko gaitasuna galdua ez duela eta Administrazio Publikoaren zerbitzutik zigor-espeditente bidez baztertuta ez dagoela.

— Zinpeko aitortpena, non jasoko den ez dagoela Administrazio publikoetan lan egiten duten langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bateraezintasuneko eta ezgaitasuneko inongo kasutan sartuta.

— Bergarako Udaleko zerbitzu medikoen ziurtagiri medikoa, non egiaztatuko den bere lanean jardutea oztopatuko liokeen gaixotasunik edo akats fisikorik ez duela.

— Dokumentazio hori aurkezteko emandako epearen barruan izangaiak ez badu agiririk ekartzen, edo ez badu egiaztatzen eskatutako baldintzak betetzen dituela, aukeraketak ez du inongo ondorioz izango eta ordura arte egin dituen jardun guztiak baliogabetuta geratuko dira.

Bitarteko funtzionario izendatu den izangai behartuta egongo da Udalbatzak komenigarritzat jotzen dituen prestakuntza- eta trebakuntza-ikastaroak egitera, bete beharreko lanpostuko eginkizunei lotutako gaietan beharrezko gaitasuna edo ezaguera lortzeko; eta hori dena Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/89 Legearen 28. artikulua ezartzen duenaren arabera.

Hamaikagarrena. Deialdiaren inpugnazioa

Interesatuta daudenek inpugnatu dezakete deialdia, haren oinarriak eta haien ondorioz eta epaimahaiaren jardunaren ondorioz sortatutako administrazio-egintza guztiak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak dioen kasuetan eta hark ezarritako moduan.

GAIAK

1. 6/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena:

II. titulua. Zirkulazioko jokabide-arauak.

III. titulua. Seinalizazioa. (53 eta 54 artikulua).

IV. titulua. Administrazio-baimenak.

V. titulua. Zehapen-araubidea.

<https://www.Boletín Oficial del Estado.es/legislacion/>

2. Azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa, Zigor Kodeari buruzkoa:

<https://www.Boletín Oficial del Estado.es/buscar/pdf/1995/Boletín Oficial del Estado-A-1995-25444-consolidado.pdf>

- Bide-segurtasunaren kontrako delituak.
- Delituak eragozteko edo delituen jazarpena sustatzeko eginbeharrak ez betetzea.
- Funtzionarioek egoitzaren bortxaezintasunaren kontra egindako delituak eta intimitateari buruzko gainerako bermeak.
- Agintaritzaren aurkako atentatuak, agintaritzaren agenteen edo funtzionario publikoen kontrakoak, eta haiei jarkitzea eta desobeditzea.

3. Araututako aparkalekuen udal zerbitzuaren ordenantza.

4. Animaliak edukitzea eta babestea arautzeko udal ordenantza.

5. Obrak burutzean edukiontzi, hesi babestaile, aldamiu eta gainontzeko ekipamendu eta materialez bide publikoaren erabilera pribatua edo berezia arautzeko udal ordenantza.

6. Bide edo leku publikoak komertziala ez den publizitatearekin erabiltzeari buruzko ordenantza.

7. Kalez-kaleko salmenta arautzeko ordenantza

8. 4/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako. II tituluko IV. kapitulua: Administrazioaren araudian eta jardueran berdintasuna sustatzeko neurriak.

9. 3/2018 Datu Pertsonalen Babeserako Lege Organikoa: I., II. eta III. tituluak (1etik 18. artikulura arte).

10. Bide publikoan terrazak jartzea arautzeko udal ordenantza

11. Martxoaren 30eko 47/2015 Hiritarren Segurtasunerako Lege Organikoa: 3. kapitulua.

Udaleko Araudia topatzeko: <https://www.bergara.eus/> «Udala» atalean, «Udal araudia eta ordenantzak», «Egun indarrean dauden ordenantzak eta erregelamenduak»

PROBA FISIKOAK

— *Lehenengo ariketa. Press-banca.*

Banku batean, gora begira etzanda, hankak tolestuta, oinak lurrean eta eskuak sorbalden zabalera baino pixka bat gehiago bananduta (hatz lodiaren ermamiak proba egiteko barraren zati lau eta zimurtsua ukituko du), besoak tolestu bularrarekin barra ukitu arte eta gero erabat luzatu.

Ariketa hasi eta gero, ezin izango da gelditu, eta ezingo dira eskuak hasierako heldulekutik mugitu, ezta oinak lurretik altxa ere, ezta gorputzarekin konpentsazio mugimendurik egin ere. Baldintza hauetako edozein hausten bada, proba geldituko da eta momentura arte egindako errepikapenak apuntatuko dira.

Gizonek 35 kilo altxa beharko dituzte eta emakumeek 25.

Neurketa: behar bezala egiten ez diren jasoaldiak ez dira zenbatuko (bularra ukitu arte flexio sakona eta besoen luzapen osoa).

BAREMOA

GIZONAK ETA EMAKUMEAK

Errepikap.	Puntuak	Errepikap.	Puntuak
45	5,00	35	5,00
44	4,75	34	4,75
42-43	4,50	32-33	4,50
40-41	4,00	30-31	4,00
36-39	3,50	26-29	3,50
30-35	3,00	20-25	3,00
22-29	2,50	12-19	2,50
21	0	11	0

— *2. ariketa. Course Navette*

Hautagaia lerro baten atzean kokatuko da eta soinu-seinale baten ondoren hasiko da proba. Kontrako aldean (20 metrotara) dagoen lerroa zapaldu arte egingo du korri, eta lasterketarekin jarraitzeko soinu-seinale bat entzun arte itxarongo du. Egoera hau proba osoan errepikatuko da.

Lasterketaren erritmoa audio-dispositibo batek erregulatuko du, eta bitarte erregularretan joko du.

Neurketa: hautagaietakoren batek audio dispositiboak seinalatzen duen momentuan lerroa zapaltzen ez badu, soinu-seinaleak markatzen duen erritmoa baino azkarrago badao, norabide-aldaketa marra zapaldu gabe egiten badu, edo biraketa zirkularrak egiten baditu lerroaren gainean pibotatu orde, horietariko edozein lehen aldiz eginez gero ohartarazi egingo zaio; eta aipatutako arrazoiengatik bigarren ohartarazpena egiten bada, proba bukatuko da, betetako azken denboraldia apuntatuz.



BAREMOA
GIZONAK ETA EMAKUMEAK

Baremoa	Puntuak	Baremoa	Puntuak
10,5	5,00	9	5,00
9,5	4,00	8	4,00
9	3,00	7,5	3,00
8,5	2,00	7	2,00
8	1,00	6,5	1,00
8>	0	6,5>	0



AYUNTAMIENTO DE BERGARA

BASES DE LA CONVOCATORIA DE UNA BOLSA DE TRABAJO DE AGENTES DE LA POLICÍA MUNICIPAL

Primera. Objeto de la convocatoria

El objeto de las presentes bases es la convocatoria de pruebas selectivas para la creación de una bolsa de trabajo de agentes de Policía Municipal.

La jornada de trabajo diaria será la que establezca el ayuntamiento, atendiendo en todo caso a la naturaleza y necesidades del servicio.

Su trabajo consistirá en asumir los cometidos y funciones que están aprobados por el ayuntamiento y encomendados a la Policía Municipal de Bergara.

Así mismo, colaborar en las necesidades del ayuntamiento y cumplir las órdenes de su jefe de servicio, siempre conforme a su trabajo y categoría. A fin de conocer la totalidad de las funciones, consúltese las que se recogen en el cuestionario de valoración del puesto.

Las características del puesto son las siguientes:

—Titulación: Estar en posesión del Graduado Escolar, Formación Profesional de primer grado, o titulación equivalente. En el caso de las titulaciones extranjeras, se deberá estar en posesión de la credencial que acredite su homologación.

—Perfil lingüístico exigido: PL-2 del IVAP, preceptivo.

—Carnet de conducir clase B, en vigor.

Segunda. Condiciones de las personas aspirantes

Las personas que deseen tomar parte en la convocatoria, para ser admitidas, deberán cumplir todos y cada uno de los siguientes requisitos:

a) Tener la nacionalidad española

b) No estar incurso en causa legal de incompatibilidad o incapacidad según la normativa vigente, dejando a salvo el derecho a opción que esta le otorgue.

c) Estar en posesión del Graduado Escolar, Formación Profesional de primer grado, o titulación equivalente. En el caso de las titulaciones extranjeras, se deberá estar en posesión de la credencial que acredite su homologación.

d) Tener una estatura mínima de 1,65 metros en el caso de los hombres y 1,60 metros en el caso de las mujeres. Este requisito se acreditará en el momento en que sea requerido.

e) Estar en posesión del permiso de conducir clase B.

f) Estar en posesión del perfil lingüístico 2 de euskera. Este requisito se acreditará mediante la presentación del certificado correspondiente o a través del ejercicio que se realice al efecto en la fase de oposición.

g) No estar incurso en el cuadro de exclusiones médicas que figura en el anexo del Decreto 315/1994, por el que se aprueba el reglamento de selección y formación de la policía del País

Vasco. Este extremo habrá de acreditarse en su momento mediante el oportuno reconocimiento médico.

h) No haber sido condenada por delito doloso, ni estar separada del servicio de la Administración Pública, ni hallarse inhabilitada para el ejercicio de funciones públicas. No obstante, será aplicable el beneficio de la rehabilitación, de acuerdo con las normas penales y administrativas.

i) No haber sido excluida de un proceso selectivo para el ingreso en algún cuerpo de Policía del País Vasco por la comisión de una falta grave o muy grave, salvo que hubiera transcurrido un periodo de tiempo equivalente a su plazo de prescripción contado desde la fecha de declaración de la exclusión.

